Gure ordenamendu juridikoan, argi eta garbi, jabari publikoko ondasunak jabari edo ondare pribatuaren eremutik at daude (ez da gauza bera gertatzen, esate baterako, hondartzak, ibaiak edo urak pribatizatzea ahalbidetzen duten beste antolamendu batzuetan), nahiz eta gure sistema juridikoan, jabari publikoko baimenen eta emakiden bidez, modu pribatiboan erabil edo ustia daitezkeen, kasuan-kasuan dagozkien tasak edo jabari publikoko kanona ordaintzearen truke. Hori guztia dela eta, jabari publikoko ondasunak erabilera komun orokorrekoak izan daitezke, edo baimen edo emakidari lotutako erabilera berezi edo pribatibokoak.

Azkenik, gogora ekarri behar da ondasun publikoak zerbitzu publikoetara afektatzeak edo erabilera horretara bideratzeak zehazten duela zein ondasun pribatibok eskuratzen duten normalean jabari publikoaren izaera. Nahiz eta, praktikan, Administrazioaren ondare-ondasunak, bai eta jabetza pribatuko ondasunak ere, erabil daitezkeen zerbitzu publikoak emateko euskarri material gisa.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, 33/2003 Legearen euskarazko itzulpenaren hitzurre honetan, poztea baino ez zaigu geratzen itzulpena egokia delako, gure ordenamendu juridikoan duen garrantzia kontuan hartuta.

Iñaki AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA  
Administrazio Zuzenbideko katedraduna (UPV/EHU)

# Presentación

Las Administraciones públicas disponen de medios materiales para satisfacer los fines públicos que tienen asignados. Dichos medios integran el patrimonio de las Administraciones Públicas que, conforme a lo dispuesto en el art. 3.1 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas «está constituido por el conjunto de sus bienes y derechos, cualquiera que sea su naturaleza y el título de su adquisición o aquel en virtud del cual les hayan sido atribuidos».

La promulgación de la Ley 33/2003 establece un nuevo régimen jurídico en la gestión del patrimonio público —que constituye el eje central de la regulación contenida en la Ley— después de casi cuarenta años de vigencia de la anterior normativa. Este nuevo régimen trata de responder a un escenario diferente, derivado, en primer lugar, de la aprobación de la Constitución española de 1978, cuyo art. 132, dedicado a los bienes públicos, se remite al legislador para regular «el Patrimonio del Estado» y «el régimen jurídico de los bienes de dominio público». La competencia del Estado para establecer este régimen tiene su núcleo fundamental en el art. 149.1. 18.<sup>a</sup> de la Constitución que atribuye al Estado la competencia para aprobar las «bases del régimen jurídico de las Administraciones Públicas», y la «legislación básica sobre contratos y concesiones administrativas». La Ley trata de establecer el marco estatal que debe servir de referencia a todas las Administraciones en cuanto legislación básica en materia de bienes públicos.

Desde el punto de vista técnico jurídico, la aprobación de esta legislación básica responde a dos requerimientos fundamentales: por un lado, cerrar el bloque regulador de los bienes de las Administraciones públicas satisfaciendo una demanda planteada tanto por las normas estatales como por los ordenamientos



# Aurkezpena

Administrazio publikoek esleituak dituzten helburu publikoak ase ahal izateko baliabide materialak dauzkate beren esku. Baliabide horiek osatzen dute administrazio publiko horien ondarea, hain zuzen ere, Administrazio publikoaren ondarea arautu duen azaroaren 3ko 33/2003 Legeak bere 3.1 artikuluan dioenez, «haien ondasun eta eskubide guztien multzoak osatzen» duena, «edo zein dela ere haien izaera eta eskuratu zituzteneko titulua edo haiei esleitu zitzaizkieneko titulua».

33/2003 Legea aldarrikatzeak, aurreko araudia ia berrogei urtez indarrean egon ondoren, ondare publikoaren kudeaketari buruzko araubide berria ekarri du berekin —horixe da Legearen araudiaren ardatza—, Araubide berri honek, batez ere Espainiako 1978ko Konstituzioa onartzearekin eratutako eszenatoki zeharo desberdin bati eman nahi dio erantzuna; izan ere, Konstituzioaren 132. artikulua, ondasun publikoak gaitzat dituenak, legelari igorri baitio «Estatuaren Ondarea» arautzea, baita «jabari publikoko ondasunen araubidea» onartzea ere. Araubide hori ezartzeko Estatuak duen eskumenaren oinarritzko muina 149.1 artikulua 18. zenbakian datza, «administrazio publikoaren araubidearen oinarriak» eta «administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarritzko araudia» onartzeko eskumena berak eman baitio Estatuari. Ondasun publikoaren arloko oinarritzko legedi gisa, administrazio guztiek erreferentziatzen hartu beharko duten esparru estatala ezarri nahi du Legeak.

Ikuspegi tekniko juridikotik begiratuta, berriz, oinarritzko legedi hau onartzeak funtsezko bi eskakizun ase nahi izan ditu: alde batetik, bai arau estatalak, bai eta ordenamendu autonomikoek eskatzen zuten moduan administrazio publikoaren ondasunen arau multzoa burutzea; eta, bestetik, ondareari buruzko le-

autonómicos; y, por otro lado, eliminar la inseguridad jurídica que genera tener que extraer las bases de la legislación sobre patrimonio por vía interpretativa de unas normas que no han sido dictadas con esta finalidad.

Además, otras disposiciones de la ley resultan aplicables a todas las Administraciones públicas por tratarse de normas civiles (artículo 149.1. 8.<sup>a</sup>), normas procesales (artículo 149.1. 6.<sup>a</sup>), normas sobre régimen económico de la Seguridad Social (artículo 149.1. 17.<sup>a</sup>), o legislación sobre expropiación forzosa (artículo 149.1. 18.<sup>a</sup>). El resto de los artículos de esta Ley serán de aplicación en el ámbito del régimen jurídico patrimonial de la Administración General del Estado y de sus organismos públicos.

Hemos considerado la necesidad de proceder a la traducción de este texto porque, en virtud de su Disposición final segunda, muchos de sus preceptos resultan de aplicación a todas las Comunidades Autónomas, entidades que integran la Administración local y entidades de Derecho público vinculadas o dependientes de ellas. Estos preceptos constituyen, por tanto, el marco que sirve de referencia también a las Administraciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco. La Ley ha sido desarrollada por el Reglamento aprobado mediante Real Decreto 1373/2009, de 28 de agosto.

En el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Estatuto de Autonomía del País Vasco establece en el número 7 de su artículo 10 la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma en materia de bienes de dominio público y patrimoniales de su titularidad. El artículo 43.3 de la misma norma reserva a una ley del Parlamento Vasco la regulación de la administración, defensa y conservación del patrimonio del País Vasco. En aplicación de dichos preceptos se aprobó la Ley 14/1983, de 27 de julio, del Patrimonio de Euskadi. En la actualidad, es el Decreto legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, la norma que establece el régimen jurídico de los bienes y derechos que integran el patrimonio de la Comunidad Autónoma o patrimonio de Euskadi.

Es preciso señalar que el Estatuto de Autonomía para el País Vasco, en su art. 37, y la Ley 27/1983, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, en su artículo 7, establecen que es competencia exclusiva de los Territorios Históricos el régimen de los bienes provinciales y municipales. En desarrollo de estas previsiones, cada uno de los Territorios Históricos dispone de su Norma Foral reguladora del régimen jurídico de los bienes de dominio público, y de los bienes de dominio privado, o patrimoniales, que integran el Patrimonio del Territorio Histórico (en Gipuzkoa aún se mantiene en vigor la Norma Foral 8/1996, de 9

gediaren oinarriak, interpretazio-bidez, helburu horrekin onartutakoak ez ziren arauetatik eratorri beharrak eragiten duen segurtasunik ez juridikoa desagerraztea.

Horrez gain, Legearen beste xedapen batzuk ere administrazio publiko guztiek aplikatu beharrekoak izango dira, honako kasu hauetan: arau zibilak (149.1. 8. art.), arau prozesalak (149.1. 6. art.), Gizarte Segurantzaren ekonomia-araubideari buruzkoak (149.1. 17. art.) edota nahitaez desjabetzeari buruzko legedia (149.1. 18. art.). Legearen gainerako artikulua Estatuko Administrazio Orokorraren eta haren organismo publikoen ondare-araubidearen eremuan aplikatuko dira.

Azken Xedapenetan bigarrenak eraginik, testu hau itzultzeko beharra ikusi dugu, Legearen aurreikuspen ugari autonomia erkidego guztiei, toki-administrazioa osatzen duten entitateei, bai eta aipatutako horiei lotutako edo horien mendeko diren Zuzenbide publikoko entitateei ere, aplikatuko zaizkiela kontuan izanda. Agindu horiek, ondorioz, Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioentzat ere erreferentzia izango den esparru dira. Abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretuz onartutako Erregelamenduak garatu du Legea, bestalde.

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eremuan, Euskadiko Autonomia Estatutuak, bere 10. artikulua 7. zenbakian, eskumen eskusiboa eman dio Autonomia Erkidegoari bereak dituen jabari publikoko ondasun eta ondare-ondasunen arloan. Aurrerago, 43.3 artikulua Eusko Legebiltzarraren legeri gorde dio Erkidegoko ondarearen administrazio, babes eta kontserbazioa. Aipatutako agindu horiek aplikatuz, Euskadiko Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legea onartu zen. Gaur egun, ordea, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartu duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretua da indarrean dagoena eta Autonomia Erkidegoko ondarea, hots, Euskadiko ondarea, osatzen duten ondasun eta eskubideen araubidea ezartzen duena.

Esandakoaz gain, aipatu behar da Euskadiko Autonomia Estatutuaren 37. artikulua, eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta haren Lurralde Historikoetako Foru Organoen harremani buruzko 27/1983 Legearen 7. artikulua, probintzia eta udaletako ondasunen araubidea lurralde historikoen eskumen eskusibotzat aurreikusi dutela. Horren garapen gisa, lurralde historiko bakoitzak badu bere Ondarea osatzen duten jabari publikoko ondasunen eta jabari pribatuko edo ondare-ondasunen araubidea ezartzen duen Foru Araua (Gipuzkoan, esate baterako, oraindik indarrean dirau uztailaren 9ko 8/1996 Foru Araua, Lege estatala onartu aurrekoa; Bizkaian, berriz, azaroaren 16ko

de julio, anterior a la aprobación de la presente disposición; Bizkaia cuenta con la Norma Foral 3/2006, de 16 de noviembre; y es en Álava donde nos encontramos con la de adopción más reciente: la Norma Foral 11/2019, de 27 de marzo).

Atendiendo la especificidad de los Territorios Históricos, la Disposición adicional vigésima quinta de la Ley 33/2003 regula la sucesión abintestato de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos del País Vasco y establece que la declaración como herederas abintestato de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos del País Vasco se realizará por la Diputación Foral correspondiente.

En cuanto a las novedades introducidas por la Ley 33/2003, cabe señalar que uno de los principales objetivos es dotar a la Administración de instrumentos que le permitan extraer la mayor rentabilidad posible a sus bienes y derechos patrimoniales, bien a través de su enajenación, bien a través de su aprovechamiento o explotación, con el fin de reducir o eliminar el déficit público. A ello alude explícitamente su Exposición de Motivos cuando afirma que «una de las preocupaciones fundamentales de la Ley ha sido hacer posible la articulación de una política patrimonial integral para el sector estatal, que permita (...) coordinar su gestión con el conjunto de políticas públicas, señaladamente, las políticas de estabilidad presupuestaria y de vivienda».

El sector público empresarial ha experimentado un notable crecimiento y diversificación tipológica, adquiriendo una progresiva complejidad. La Ley pretende adecuar la gestión patrimonial al principio de movilización eficiente de los activos, que hoy informan los sistemas de administración de bienes en los países de nuestro entorno y en las grandes corporaciones.

La Ley pretende, asimismo, reconducir la fragmentación normativa que aquejaba a la legislación aplicable a los patrimonios públicos del sector estatal, y coordinar su gestión con el conjunto de políticas públicas, especialmente con las políticas de estabilidad presupuestaria y de vivienda. Así, desde el punto de vista subjetivo, la Ley considera de forma conjunta el régimen patrimonial de la Administración General del Estado y el de los organismos públicos dependientes de ella.

Por lo que se refiere al ámbito objetivo de regulación, el patrimonio público pasa a definirse como un conjunto de bienes y derechos que pueden estar sujetos a un doble régimen: de carácter jurídico público, los bienes y derechos demaniales, y de carácter jurídico privado, los patrimoniales. Ahora bien, la regulación de los bienes y derechos de dominio público está pensada para operar con carácter supletorio respecto de la legislación sectorial.

3/2006 Foru Arauak ditu arlo honetako aurreikuspenak; eta Arabako Lurralde Historikokoa aipatuko dugu azkenik, hura baita denboran ere azkena onartua izan dena: martxoaren 27ko 11/2019 Foru Araua).

Lurralde historikoen berezitasunak kontuan hartuz, 33/2003 Legearen Ho-geita Bosgarren Xedapen Gehigarriak arautu du Euskadiko lurralde historikoen foru-aldundien abintestato jaraunspena, eta han aurreikusi denez, foru-aldundi bakoitzari egokituko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoko foru-aldundia abintestato jaraunse deklaratzeko.

33/2003 Legeak barneratutako berrikuntzei begira jarriz, azpimarragarria da helburu nagusietako bat administrazioari bere ondare-ondasun eta -eskubideei ahalik eta errentagarritasun gehien ateratzen lagunduko dioten tresnak ematea dela —besterentze nahiz aprobeixamendu edo ustiapen bidez— defizit publikoa murriztu edo ezabatzeko asmoz. Legeak honela dio hitzez hitz Zioen Azalpenean: «Legearen kezka nagusietako bat izan da posible egitea sektore estatalarentzako ondare-politika integral bat artikulatzea, (...) eta haren kudeaketa koordinatzea politika publikoaren multzoarekin, bereziki aurrekontu-egonkortasunari eta etxebizitzari buruzkoekin».

Enpresa-sektore publikoa nabarmen hazi da eta erakunde-tipologia ugartu egin da, eta gero eta konplexuago bihurtu da. Legearen asmoa da ondarea kudeatzean aktiboen mobilizazio efizientearen printzipioari jarraitzea, gaur egun hori baita gure inguruko herrialdeetan eta korporazio handietan ondasunen administrazio-sistemak gidatzen dituen printzipioa,

Halaber, Legearen nahia izan da sektore estataleko ondare publikoei zuzendutako legediak pairatzen zuen arau-zatiketa berbideratzea eta ondare horien kudeaketa, oro har politika publiko guztiekin koordinatzea, baina aurrekontu-egonkortasunaren eta etxebizitzaren politikekin bereziki. Hartara, ikuspegi subjektibotik begiraturata, Estatuko Administrazio Orokorraren ondare-araubidea eta haren mendeko organismo publikoena elkarrekin eta batera hartzen ditu Legeak.

Araudiaren eremu objektiboari dagokionez, bestalde, ondare publikoa definitzean, kontzeptua osatzen duten ondasun eta eskubide multzoa araubide bikoitz baten mende egon daitekeela zehazten da: izaera juridiko publikokoaren mende jabari publikokoak, eta ondare-ondasunak, izaera juridiko pribatukoaren mende. Aitzitik, jabari publikoko ondasun eta eskubideen araudia legedi sektorialaren ordeztaila gisa baliatzeko aurreikusita dago.

Se establecen los principios a que ha de sujetarse la gestión de los bienes y derechos, principios que responden en última instancia a la consideración de estos bienes y derechos como activos que deben ser administrados de forma integrada con los restantes recursos públicos, de acuerdo con los criterios constitucionales de eficiencia y economía, y haciendo efectiva su vocación de ser aplicados al cumplimiento de funciones y fines públicos.

Finalmente, es preciso señalar que se ha pretendido simplificar los trámites y racionalizar los procedimientos de gestión patrimonial. Asimismo, la Ley se compromete a la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en todos los ámbitos de la gestión patrimonial y, especialmente, en aquellos que requieren de una fluida relación con terceros.

En resumidas cuentas, el patrimonio de las entidades públicas constituye un elemento de primer orden en la satisfacción y correcto ejercicio de la multiplicidad de funciones y tareas que la sociedad exige actualmente de la Administración pública. A tal fin, resulta imprescindible que se les confiera un uso apropiado (eficaz y eficiente), que, al propio tiempo, dificulte su detrimento o pérdida. Es a esa necesidad a la que debe dar respuesta el régimen regulador del patrimonio público.

Carmen AGOUES MENDIZABAL  
Eunate PRIETO ETXANO  
Jasone URKOLA IRIARTE

Halaber, ondasun eta eskubideen kudeaketa gidatuko duten printzipioak ere ezarri dira. Ondasun eta eskubide horiek gainerako baliabide publikoekin batera, administratu beharreko aktibotzat hartuz, abiapuntu gisa, planteamendu horri erantzuten diote printzipio horiek: beste baliabide publikoekin trataera integratua, Konstituzioak agindutako eragimen eta ekonomia irizpideei jarraiki, eta eginkizun eta helburu publikoak asetzeko duten bokazioa gauzatuz.

Azkenik, aipatu behar da ondare-kudeaketan izapideak sinpletzea eta prozedurak arrazionalizatzea izan dela helburua. Horrekin batera, ondare-kudeaketaren eremu guztietan baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzeko konpromisoa hartu du Legeak; bereziki, hirugarren pertsonekin harreman arina behar den haietan.

Esandakoak laburbilduz, gaur egun gizarteak administrazio publikoari eskatzen dizkion eginkizun eta ataza ugariak egoki gauzatu eta asetzeko lehen mailako tresna da entitate publikoen ondarea. Hori guztia errealitate bihurtzeko, ezinbestekoa da erabilpen aproposa (eraginkortasun eta eragimenaren araberakoa) ematea, aldi berean, ondare hori kaltetzea edo galtzea eragoziko duena. Behar horri erantzutera behartuta dago, hain zuzen ere, ondare publikoaren araubidea.

Carmen AGOUES MENDIZABAL  
Eunate PRIETO ETXANO  
Jasone URKOLA IRIARTE

LEY 33/2003, DE 3 DE NOVIEMBRE,  
DEL PATRIMONIO DE LAS  
ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

---



33/2003 LEGEA, AZAROAREN 3KOA,  
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN  
ONDAREARI BURUZKOA

---

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

### I

Las disposiciones fundamentales de la legislación estatal sobre patrimonio se aproximan a los cuarenta años de vigencia: el texto articulado de la Ley de Bases del Patrimonio del Estado se aprobó por Decreto 1022/1964, de 15 de abril, y su Reglamento por Decreto 3588/1964, de 5 de noviembre.

Durante las casi cuatro décadas transcurridas desde su promulgación, el contexto político y jurídico en que se insertan estas normas, y aun la misma realidad que pretenden regular, han experimentado cambios trascendentales. Factores destacados de esta evolución han sido, entre otros de menor importancia, la aprobación de la Constitución de 1978 que, por una parte, dedica un artículo específico, el 132, a los bienes públicos demandando leyes para regular «el Patrimonio del Estado» y «el régimen jurídico de los bienes de dominio público» y, por otra, articula territorialmente el Estado sobre la base de comunidades autónomas, competentes, cada una de ellas para regular su patrimonio propio; cabe destacar también el proceso general de renovación normativa que ha afectado a los cuerpos legales básicos que pautan la actividad de la Administración; la proliferación de regímenes especiales de gestión patrimonial, a través de los cuales se canaliza la administración de amplias masas de bienes; y, por último, la notoria ampliación del parque inmobiliario público, especialmente en lo que se refiere a los edificios destinados a usos administrativos, con el correlativo incremento de su participación en el gasto público y la consiguiente necesidad de considerar con mayor detenimiento las implicaciones presupuestarias de su gestión. De igual forma, el sector público empresarial ha experimentado un notable crecimiento y diversificación tipológica, adquiriendo una progresiva complejidad el marco de sus relaciones con la Administración General del Estado.

## ZIOEN AZALPENA

### I

Ia berrogei urte dituzte ondareari buruzko Estatuko legeriaren xedapen funtsezkoenak: Estatuaren Ondarearen Oinarri Legea, 1964ko apirilaren 15eko 1022/1964 Dekretuak onetsia, eta haren Erregelamendua, 1964ko azaroaren 5eko 3588/1964 Dekretuak onetsia.

Bi arauok aldarrikatu zirenetik igarotako ia lau hamarkadetan, garrantzi handiko aldaketak izan dira haien testuinguru politiko eta juridikoan, eta are arautu nahi duten errealitatean bertan. Bilakaera horretan, faktore nabarmenak izan dira, garrantzi gutxiagoko beste batzuekin batera, honako hauek: lehenik, 1978ko Konstituzioaren onespena, zeinak, alde batetik, artikulua espezifikoa bat eskaintzen baitie (132. artikulua) ondasun publikoei, legeak eskatuz «estatuaren ondarea» eta «jabari publikoko ondasunen araubide juridikoa» arautzeko, eta, bestetik, Estatuaren lurralde-antolamendua eratzen baitu, autonomia-erkidegoetan oinarrituta, haietako bakoitzak bere ondarea arautzeko eskumena duela; bigarrenik, arauak berritzeko prozesu orokorra, Administrazioaren jardura gidatzen duten oinarriko lege-testuei eragin baitie; hirugarrenik, ondarea kudeatzeko araubide bereziak ugaltzea, zeinen bidez bideratzen baita ondasun-masa handien administrazioa; eta, azkenik, higiezinaren parke publikoa nabarmen handitzea, administrazio-erabilpena xede duten eraikinei dagokienez bereziki, horrek berekin dakarrela gastu publikoan duen parte eta kudeaketaren aurrekontu-ondorioak xehekiago aintzat hartu beharra. Era berean, enpresa-sektore publikoa asko hazi da, eta tipologikoki dibertsifikatu, eta gero eta konplexuagoa du Estatuaren Administrazio Orokorreko harremanen esparrua.

La adaptación de la legislación patrimonial a este nuevo escenario se ha tratado de llevar a cabo a través de modificaciones parciales del Decreto 1022/1964, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley de Bases del Patrimonio del Estado y la promulgación de normas que han regulado aspectos concretos de la administración de los bienes estatales.

No obstante, el carácter parcial y limitado de estos intentos ha impedido articular una respuesta integral a las exigencias planteadas por las nuevas condiciones en que ha de desenvolverse la gestión patrimonial, de tal forma que, en el momento actual, la legislación sobre bienes públicos se enfrenta al reto de integrar una serie de lagunas y solventar ciertos problemas que sólo pueden abordarse con propiedad a través de una completa reforma legal.

Entre las cuestiones que deben afrontarse de forma preteroria se encuentra, en primer lugar, la definición del marco estatal que debe servir de referencia a las distintas Administraciones en cuanto legislación básica en materia de bienes públicos.

De igual forma, parece necesario reconducir la fragmentación normativa que aqueja a la legislación aplicable a los patrimonios públicos del sector estatal, especialmente censurable si se considera que tal fragmentación ya fue denunciada por la Ley de Bases del Patrimonio del Estado como el primero de los vicios de nuestro ordenamiento en este ámbito. El «proceso puramente administrativo», de elaboración del sistema de la legislación patrimonial, que veladamente reprochaba aquel texto de 1962, parece haberse impuesto, una vez más, a la racionalidad legislativa y, en el momento actual, el Decreto 1022/1964, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley de Bases del Patrimonio del Estado en cuanto disposición reguladora del patrimonio de la Administración General del Estado y la Ley 6/1997, de 14 de abril, de Organización y Funcionamiento de la Administración General del Estado, como norma que recoge el régimen patrimonial general a que deben ajustarse los organismos públicos, se encuentran desbordadas por una multiplicidad de disposiciones que han instaurado regímenes peculiares de administración para ciertas masas integradas en el patrimonio del Estado o reglas especiales para los bienes de ciertos organismos.

El relativo desfase del Decreto 1022/1964, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley de Bases del Patrimonio del Estado, a pesar de su perfección técnica unánimemente reconocida y, en conexión con este último rasgo, el anclaje de la ley en una concepción eminentemente estática de la gestión patrimonial, ampliamente superada por las aproximaciones más dinámicas, inspiradas por el principio de movilización eficiente de los activos, que hoy informan los sistemas de administración de bienes en los países de

Ondareari buruzko legeria egoera berri horretara egokitzeko, ahalegina egin da 1964ko apirilaren 15eko 1022/1964 Dekretuaren aldaketa partzialen bidez, zeinak onesten baitu Estatuaren Ondarearen Oinarri Legea, eta ondasun estatalen administrazioaren alderdi zehatz batzuk arautzen dituzten zenbait arau aldarrikatuz.

Hala ere, ahalegin horiek partzialak eta mugatuak izan dira, eta, ondorioz, ezin izan zaie erantzun integral bat eman ondare-kudeaketaren inguruko baldintza berriek jartzen dituzten eskakizunei. Hala, gaur egun, ondasun publikoen gaineko legeriak dituen hutsuneak hornitzeko eta arazoei konponbidea emateko erronkari behar bezala aurre egiteko modu bakarra lege-erreforma oso bat da.

Premiaz heldu beharreko gaien artean dago, lehenik eta behin, definitzea zer esparru estatal hartu behar duten administrazioek erreferentziazat ondasun publikoen arloko oinarritzko legeria gisa.

Halaber, esan liteke konpondu beharrekoa dela sektore estatalako ondare publikoei aplikatzeko legeriaren zatiketa, bereziki kritikagarria kontuan hartzen badugu Estatuaren Ondarearen Oinarri Legeak berak salatu zuela, arlo honetako ordenamenduaren akats nagusi gisa. 1962ko testu hark, sotilki, gaitzesten zuen ondare-legeria prestatzeko «prozesu administratibo hutsa», baina badirudi beste behin ere huraxe gailendu zaiola legegintzako arrazionaltasunari. Gaur egun, 1964ko apirilaren 15eko 1022/1964 Dekretua, Estatuaren Ondarearen Oinarri Legearen testu artikulatua onesten duena, eta 1997ko apirilaren 14ko 6/1997 Legea, Estatuaren Administrazio Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamendua arautzen duena, organismo publikoek bete beharreko ondare-araubide orokorra jasotzen duen arau moduan, gainezkatuta daude, hainbat eta hainbat xedapenek administrazio-araubide bereziak ezarri baitituzte estatuaren ondarean integratutako masa batzuentzat, edo erregela bereziak zenbait erakunderen ondasunentzat.

Gerorako utzi gabe tratatu beharreko arazoak dira, halaber, Estatuaren Ondarearen Oinarri Legearen testu artikulatua onesten duen 1964ko apirilaren 15eko 1022/1964 Dekretua neurri batean desfasatua egotea, nahiz eta orok aitortua duen perfekzio teknikoa, eta, ezaugarri horrekin loturik, lege hori ondare-kudeaketaren ulerkeragisiki estatiko batean ainguratzea, ikuspegi hori aise gañditua dutelarik gure inguruko herrialdeetan eta korporario handietan ondare-kudeaketako sistemak informatzen dituzten hurbil-

nuestro entorno y en las grandes corporaciones, constituyen problemas cuyo tratamiento tampoco puede diferirse.

El transcurso del tiempo, por último, ha generado una progresiva descoordinación, siquiera sea en aspectos jurídico-formales, entre el Decreto 1022/1964, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley de Bases del Patrimonio del Estado y otros bloques normativos que integran el núcleo básico regulador de la actividad y funcionamiento de la Administración.

Reaccionando frente a esta situación, la Ley del Patrimonio de las Administraciones Públicas pretende sentar las bases normativas para la formulación y desarrollo de una política global relativa a la gestión de los bienes públicos estatales, abordar los diferentes problemas que plantean las relaciones entre las distintas Administraciones públicas en materia patrimonial, efectuar una detenida revisión de las normas que rigen la administración de bienes y actualizar la regulación del patrimonio público empresarial.

## II

Una de las preocupaciones fundamentales de la ley ha sido hacer posible la articulación de una política patrimonial integral para el sector estatal, que permita superar el fraccionamiento de los sistemas de administración de los bienes públicos y coordinar su gestión con el conjunto de políticas públicas señaladamente, las políticas de estabilidad presupuestaria y de vivienda.

A partir de este planteamiento inicial, se ha entendido que la política patrimonial debe estar definida por la globalidad de su alcance, su coordinación centralizada y su apoyo en unos principios básicos explicitados por la propia ley.

De esta manera, la globalidad u omnicomprensividad del enfoque, que constituye uno de los rasgos básicos de la ley, se ha extendido tanto a la delimitación subjetiva de su ámbito de aplicación, como al tratamiento que da a su objeto de regulación.

Así, desde el punto de vista subjetivo, la ley ha optado por considerar de forma conjunta el régimen patrimonial de la Administración General del Estado y el de los organismos públicos dependientes de ella, opción metodológica que empieza a edificarse a partir del mismo dato formal de su contemplación en un único cuerpo legal superando la escisión en dos textos que existen actualmente y del desarrollo paralelo de las normas propias de cada uno. Con ello se

keta dinamikoago batzuek, aktiboen mobilizazio efizientearen printzipioa gidari harturik.

Denboraren joanak berekin ekarri du, azkenik, gero eta deskoordinazio handiagoa izatea, alderdi juridiko-formaletan, Estatuaren Ondarearen Oinarri Legearen testu artikulatua onesten duen 1964ko apirilaren 15eko 1022/1964 Dekretuaren eta Administrazioaren jarduera eta funtzionamendua erregulatzen duten funtsezko beste arau-multzozko batzuen artean.

Egoera horren aurreko erreakzio gisa, Administrazio Publikoen Ondarearen Legearen asmoa da araugintza-oinarriak ezartzea ondasun publiko estatuen kudeaketarako politika global bat formulatu eta garatzeko, ondare-gaietan administrazio publikoen arteko harremanetan sortzen diren arazoei heltzea, ondasunen administrazioa gidatzen duten arauen berrikuspen xehea egitea eta enpresa-ondare publikoaren erregulazioa eguneratzea.

## II

Legearen kezka nagusietako bat izan da posible egitea sektore estatalerako ondare-politika integral baten artikulazioa, ondasun publikoak administratzeko sistemen zatiketa gaingidituko duena, eta haren kudeaketa koordinatzea politika publikoen multzoarekin, bereziki aurrekontu-egonkortasunari eta etxebizitzari buruzkoekin.

Hasierako planteamendu horretatik abiatuta, ondare-politikaren ezaugarritzat jo dira irismenaren globaltasuna, koordinazio zentralizatua eta legeak berak esplizitatutako oinarritzko printzipio batzuetan funtsatua izatea.

Hala, ikuspuntuaren globaltasuna edo orohartzaitetasuna, legearen ezaugarri oinarritzkoenetako bat izanik, zabaldu da hala aplikazio-eremuaren zedarritze subjektibora nola erregulatzen duen gaiari ematen dion tratamendura.

Era horretan, ikuspegi subjektibotik, legeak hautua egin du batera hartzeko Estatuaren Administrazio Orokorraren ondare-araubidea eta haren mendeko organismo publikoena; hautu metodologiko hori datu formal batetik hasten da gorpuzten, lege-testu bakarrean eratzen baita, gaur egun diren bi testuen banaketa eta bakoitzaren garapen-arauen bide paraleloa gaingidituta. Horrekin, gaingiditu nahi izan da organismo publikoen ondasunen erregulazioak tradizioz izan

ha querido superar el carácter fraccionario y, en cierta medida, residual que tradicionalmente ha tenido la regulación de los bienes de los organismos públicos, abordando de forma integral y homogénea su problemática patrimonial.

Adicionalmente, y con un alcance más sustantivo, la generalidad del enfoque legal encuentra su vehículo de expresión más acabado en el nuevo significado de que se dota al término tradicional «Patrimonio del Estado» que, en la ley, pasa a designar el conjunto de bienes de titularidad de la Administración General del Estado y sus organismos públicos. Ha de precisarse, sin embargo, que la reconducción conceptual de estas masas patrimoniales a la nueva categoría así definida no se ha realizado con el propósito de absorber la titularidad separada que corresponde a la Administración General del Estado y a los organismos públicos sobre sus respectivos patrimonios, o erosionar su autonomía de gestión. El concepto no pretende hacer referencia a una relación de titularidad, de difícil construcción jurídica desde el momento en que falta el referente subjetivo, sino que su acuñación tiene una finalidad meramente instrumental, y sirve a los objetivos de permitir un tratamiento conjunto de esos conjuntos de bienes a determinados efectos de regulación, y destacar la afectación global de los patrimonios de la Administración General del Estado y de sus organismos públicos, como organizaciones subordinadas al cumplimiento de los fines del Estado.

En lo que se refiere al ámbito objetivo de regulación, la ley se aparta de la tradición encarnada en el Decreto 1022/1964, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley de Bases del Patrimonio del Estado, y se inclina por considerar que los bienes demaniales se encuentran plenamente incardinados en el patrimonio de las Administraciones Públicas. El patrimonio público pasa así a definirse como un conjunto de bienes y derechos que pueden estar sujetos a un doble régimen: de carácter jurídico público, los bienes y derechos demaniales, y de carácter jurídico privado, los patrimoniales.

Este nuevo tratamiento de los bienes y derechos públicos, en línea con el que reciben en las diversas legislaciones autonómicas y en el Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, destaca los elementos de gestión comunes a ambas categorías, al tiempo que parece responder de forma más adecuada al carácter abierto o variable por el juego de las instituciones de la afectación y desafectación de su calificación jurídica, mutabilidad que se manifiesta de forma especialmente acusada en relación con los edificios administrativos.

En todo caso, la regulación de los bienes y derechos de dominio público notoriamente más extensa, por otra parte, que la que se contiene en el Decreto 1022/1964, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto articulado de la



duen zatikakotasuna eta hondarrekoatasuna, modu integral eta homogean heldurik haien ondarearen inguruko arazoari.

Horrez gain, eta irismen substantiboago batekin, legezko ikuspegiaren orokortasuna bete-betean adierazirik dator tradiziozko «estatuaren ondare» terminoari ematen zaion esanahi berrian, zeren eta, legean, Estatuaren Administrazio Orokorraren eta haren organismo publikoen titulartasuneko ondasun guztien multzoa izendatzen baitu. Nolanahi ere, zehaztu behar da ondare-masa horiek horrela definitutako kategoria berrian kontzeptualizatzeko ez duela esan nahi Estatuaren Administrazio Orokorrari eta organismo publikoei kendu nahi zaienik bakoitzari beren ondasunen gainean dagokien titulartasuna, ez eta kudeaketarako autonomia gutxitu ere. Kontzeptuak ez dio erreferentzia egin nahi titulartasun-harreman bati, zaila baita juridikoki halakorik eratzea erreferente subjektiboa falta den aldetik; aitzitik, kontzeptuak xede instrumental hutsa du, eta helburutzat dauka halako ondasun-multzoak batera tratatzeko aukera izatea, erregulazio-ondorio batzuetarako, eta nabarmentzea Estatuaren Administrazio Orokorraren eta haren organismo publikoen ondarearen afektazio globala, Estatuaren xedeak betetzearen mende jarritako erakundeak diren aldetik.

Erregulazio-eremu objektiboari dagokionez, legea aldendu egiten da Estatuaren Ondarearen Oinarri Legearen testu artikulatua onesten duen 1964ko apirilaren 15eko 1022/1964 Dekretuan mamitutako tradizioetik, eta kontsideratzen du jabari publikoko ondasunak bete-betean txertaturik daudela administrazio publikoen ondarean. Ondare publikoa, ondorioz, araubide bikoitz baten mende egon daitekeen ondasun- eta eskubide-multzo moduan definitzen da: jabari publikoko ondasunek eta eskubideek, izaera juridiko publikokoa; ondarezkoek, izaera juridiko pribatukoa.

Ondasun eta eskubide publikoen tratamendu berri hori bat dator legeria autonomikoetakoarekin eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onesten duen 1986ko ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretukoarekin. Bi kategoriek erkide dituzten kudeaketa-elementuak nabarmentzen ditu, eta ego-kiago erantzuten diela dirudi kalifikazio juridikoaren afektazio eta desafektazioarekin erakundeek ematen dioten izaera ireki eta aldakorrari, zeina bereziki nabarmentzen baita eraikin administratiboen kasuan.

Nolanahi dela ere, jabari publikoko ondasunen eta eskubideen erregulazioa, nabarmen zabalagoa bestalde Estatuaren Ondarearen Oinarri Legearen testu artikulatua onesten duen 1964ko apirilaren 15eko 1022/1964 Dekretuan

Ley de Bases del Patrimonio del Estado está pensada para operar con carácter supletorio respecto de la legislación especial. La aplicación en primer grado de sus normas se producirá, por tanto, sólo en relación con aquellos bienes demaniales por afectación que carecen de una disciplina específica, señaladamente, los edificios administrativos, cuyos problemas de gestión son objeto de particular consideración en el texto, y que han servido de guía para la regulación efectuada.

Apoyándose en el nuevo concepto de Patrimonio del Estado, el texto elaborado ha pretendido reforzar la coordinación de la gestión de bienes en todo el ámbito estatal. En cualquier caso, y al igual que ocurre con la definición de aquella categoría, la idea de coordinación parte de un pleno respeto a la autonomía de gestión que corresponde a los diferentes titulares de bienes para, desde esta base, establecer mecanismos que permitan hacer efectiva la común y general afectación de los bienes y derechos de la Administración General del Estado y sus organismos públicos a la realización de los fines y al ejercicio de las competencias estatales.

En cuanto a los medios instrumentales, la coordinación se ha construido, en lo que atañe a su vertiente organizativa, sobre la sistematización y clarificación de las competencias del Consejo de Ministros y del Ministro de Hacienda, la institucionalización de la Comisión de Coordinación Financiera de Actuaciones Inmobiliarias y Patrimoniales, y el refuerzo del papel de la Junta Coordinadora de Edificios Administrativos. La transposición del principio a las normas de funcionamiento ha llevado a una revisión de las figuras que sirven de cauce para las transferencias de bienes y derechos entre la Administración General del Estado y sus organismos públicos, con el fin de ampliar las posibilidades de utilización de los mismos por sujetos distintos de sus titulares, y permitir así su más eficiente asignación.

La articulación de la política patrimonial se cierra con la enunciación de los principios a que ha de sujetarse la gestión de los bienes y derechos, principios que responden en última instancia a la consideración de estos bienes y derechos como activos que deben ser administrados de forma integrada con los restantes recursos públicos, de acuerdo con los criterios constitucionales de eficiencia y economía, y haciendo efectiva su vocación de ser aplicados al cumplimiento de funciones y fines públicos. Avanzando en esta idea respecto de los bienes patrimoniales, la ley reclama una gestión de los mismos plenamente integrada con las restantes políticas públicas y, en particular, con la política de vivienda, lo que obligará a tener en cuenta, en la movilización de dichos activos, las directrices derivadas de aquéllas.

jasotakoaren aldean, legeria bereziaren ordeztaille moduan baliatzeko pentsatua dago. Hartako arauak lehen graduan aplikatzea, beraz, bakar-bakarrik gertatuko da afektazioz jabari publikoko ondasun diren eta diziplina espezifikorik ez duten ondasunentzat, bereziki eraikin administratiboentzat, zeinen kudeaketa-arazoak berariaz aintzat hartu baitira testuan eta egindako erregulazioaren gida gisa balio izan dute.

Estatuaren ondarearen kontzeptu berrian oinarrituta, testuak indartu egin nahi izan du estatuaren esparru osoko ondasun-kudeaketaren koordinazioa. Betiere, kategoria haren definizioarekin gertatzen den bezala, koordinazioaren ideia ondasun-titularrei dagokien kudeaketa-autonomia osotara errespetatzetik abiatzen da, eta, oinarri horretatik, mekanismoak ezartzen ditu benetan gauza dadin Estatuaren Administrazio Orokorraren eta haren organismo publikoen ondasunak eta eskubideak afektatzea, arruntean eta orokorrean, xedeak betetzeko eta estatuaren eskumenak baliatzeko.

Bitarteko instrumentalei dagokienez, koordinazioaren oinarriak hauek izan dira, antolamenduaren aldetik: Ministro Kontseiluaren eta Ogasuneko ministroaren eskumenak sistematizatzea eta argitzea, Higiezin eta Ondare Jardunen Finantza Koordinaziorako Batzordea instituzionalizatzea, eta Eraikin Administrazioak Koordinatzeko Batzordearen eginkizuna indartzea. Printzipioa funtzionamendu-arauetara eramateak berekin ekarri du Estatuaren Administrazio Orokorraren eta haren organismo publikoen artean ondasunak eta eskubideak transferitzeko bide ematen duten moduak berraztertzea, aukera handiagoa izan dadin titularrez besteko subjektuek ere ondasun eta eskubide horiek erabiltzeko, hartara esleipen efizienteagoa egiteko.

Ondare-politikaren artikulazioa amaitzeko, zerrendatu dira ondasun eta eskubideen kudeaketak bete beharreko printzipioak; azken batean, ondasun eta eskubideok aktibo batzuk dira gainerako baliabide publikoekin batera modu integratuan administratu beharrekoak, efizientzia- eta ekonomia-printzipio konstituzionalen arabera eta egiazki gauzatuz funtzio eta xede publikoak betetzeko aplikatuak izateko bokazioa. Ondare-ondasunei dagokienez ideia horretan aurrera eginez, legeak eskatzen du haien kudeaketa osotara integra dadila gainerako politika publikoekin eta, bereziki, etxebizitza-politikarekin. Horrek ezinbesteko egiten du halako aktiboak mobilizatzean kontuan hartzea haietatik eratorritako gidalerroak.

### III

En materia de relaciones interadministrativas resultaba inaplazable la identificación precisa de las normas que configuran el régimen patrimonial general de todas las Administraciones públicas.

Este régimen tiene su núcleo fundamental en las normas que se declaran básicas en ejercicio de la competencia atribuida al Estado por el artículo 149.1.18.<sup>a</sup> de la Constitución para aprobar las «bases del régimen jurídico de las Administraciones Públicas», materia de la que el régimen patrimonial no constituye sino una parcela, y la «legislación básica sobre contratos y concesiones administrativas».

La aprobación de esta legislación básica satisface dos requerimientos esenciales, desde el punto de vista técnico jurídico, para el ordenamiento patrimonial: por un lado, cerrar, por su vértice superior, el bloque regulador de los bienes de las Administraciones públicas satisfaciendo una demanda planteada no sólo por normas estatales, sino también por los ordenamientos autonómicos y, por otro, eliminar la inseguridad jurídica que genera tener que extraer las bases de la legislación sobre patrimonio por vía interpretativa de unas normas que no han sido dictadas con esta finalidad, problema que ha aflorado en los contenciosos que han llegado al Tribunal Constitucional y que repercute negativamente en la labor legislativa autonómica, que ha de moverse en una zona caracterizada por su indefinición.

Además de estas normas básicas, otras disposiciones de la ley serán aplicables a todas las Administraciones públicas por tratarse de normas civiles (artículo 149.1.8.<sup>a</sup>), normas procesales (artículo 149.1.6.<sup>a</sup>), normas sobre régimen económico de la Seguridad Social (artículo 149.1.17.<sup>a</sup>), o legislación sobre explotación forzosa (artículo 149.1.18.<sup>a</sup>).

Al lado de la delimitación de las normas generales del régimen patrimonial de las Administraciones públicas, la enunciación de los principios que deben informar las relaciones entre ellas en este ámbito es una novedad de la ley, cuya redacción en este punto se inspira en la Ley de Costas y en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La cooperación y colaboración son principios que tienen un valor central para la ordenación de estas relaciones en la medida en que su real aplicación y pleno desenvolvimiento pueden coadyuvar de forma decisiva a que los bienes y derechos públicos sean empleados de la forma más eficiente posible al servi-

### III

Administrazioen arteko harremanen gaian, geroraezina zen zehaztea zer arauk eratzen duten administrazio publiko guztien ondare-araubidea.

Araubide horren muina Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan Estatuari esleitzen zaion eskumena baliatzean oinarritzotzat jotzen diren arauak osatzen dute; hartan aipatzen dira «Administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak», zeinen barrenean ondare-araubidea parte bat baino ez baita, eta «kontratu eta emakida administratiboen oinarritzko legeria».

Oinarritzko legeria hau onestearekin, erantzuna ematen zaie ondarearen antolamendurako ikuspuntu tekniko juridikotik funtsezko diren bi eskakizuni. Batetik, itxi egiten da, goiko erpinean, administrazio publikoen ondasunak erregulatzeko blokea, estatuko arauak ez ezik erkidegoetako ordenamenduek ere planteatzen zuten eskaera bat betez. Bestetik, konponbidea ematen dio segurtasun juridikorik gabeko egoera bati, halakoa baitzen ondareari buruzko legeriaren oinarriak interpretazio bidez atera beharra hartarako emanak ez ziren arau batzuetatik; arazo hori azaleratu izan da Konstituzio Auzitegiraino iritsi diren auzietan, eta eragin kaltegarria du autonomia-erkidegoen legegintza-lanean, indefiniziozko eremu batean mugitu behar baitu.

Oinarritzko arau horietaz gain, legearen beste xedapen batzuk administrazio publiko guztiei aplikatzekoak izango dira, arau zibilak direlako (149.1.8 artikulua), arau prozesalak direlako (149.1.6 artikulua), Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoari buruzko arauak (149.1.17 artikulua), edo nahitaezko desjabetzeari buruzko legeria delako (149.1.18 artikulua).

Administrazio publikoen ondare-araubidearen arau orokorrak mugatzearekin batera, legearen berrikuntza bat da esparru horretan haien arteko harremanak informatu behar dituzten printzipioak adieraztea. Horretan, legearen idazketaren inspirazio-iturriak Kosten Legea eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea dira.

Kooperazioa eta lankidetzeta muin-muineko balioa duten printzipioak dira harreman horiek ordenatzeaz ari garela, zeren eta haiek egiazki aplikatzeak eta osotara gauzatzeak lagundu baitezake, modu erabakigarrian, ondasun eta eskubide publikoak ahalik eta modurik efizienteenean erabiliak izan daitezzen beren

cio de los fines a que están destinados. Junto a éstos, otros principios recogidos en el texto legal son los de lealtad institucional, información mutua, asistencia, respeto a las respectivas competencias y ponderación en su ejercicio de la totalidad de los intereses públicos en presencia.

Como trasunto orgánico de estos enunciados, se institucionaliza una Conferencia Sectorial de Política Patrimonial, con la misión de canalizar las relaciones de coordinación y cooperación entre la Administración General del Estado y las comunidades autónomas en esta materia.

#### IV

La gestión patrimonial, cuyo núcleo normativo fundamental se recoge en el título V de la ley, constituye el eje central de su regulación.

En relación con la base jurídica de la gestión de los bienes y derechos públicos se ha procedido, en primer término, a revisar la integración de la legislación patrimonial con las leyes generales reguladoras de la actividad administrativa, actualizando las remisiones y reenvíos, y poniendo en concordancia las soluciones normativas adoptadas.

En segundo lugar, la ley ha buscado ampliar las posibilidades de actuación de la Administración en este ámbito y la incorporación al acervo de la gestión patrimonial de nuevas categorías negociales, para lo cual ha sancionado formalmente la regulación de algunos negocios que ya gozan de una cierta tipicidad en la práctica patrimonial, y ha ofrecido cobertura expresa a determinadas actuaciones, que, siendo usuales en el tráfico, no encuentran, sin embargo, un claro acomodo en la legislación vigente.

En este mismo plano jurídico-formal, finalmente, la ley ha abordado una decidida simplificación procedimental, con el objetivo de aproximar los tiempos de la gestión a la celeridad exigida por el mercado en el plano externo, y demandada internamente por los diferentes órganos de la Administración General del Estado y sus organismos públicos, en cuanto destinatarios o beneficiarios de la actuación del Ministerio de Hacienda en este ámbito. Bajo esta óptica, se han suprimido determinados trámites considerados innecesarios, redundantes o de escaso valor a la hora de aportar elementos de juicio relevantes al órgano decisor, manteniendo y potenciando los necesarios para asegurar la oportunidad (memorias e informes), adecuación de la operación a las condiciones del mercado e idoneidad del bien (tasaciones e informes periciales) y corrección jurídica (informe de la Abogacía del Estado) del negocio a concluir.

xedeen zerbitzura. Bi horiekin batera, lege-testuan jasotako beste printzipio batzuk dira leialtasun instituzionala, elkarrekiko informazioa, asistentzia, elkarren eskumenen errespetua eta ageri diren interes publiko guztiak haztatzea haiek baliatzean.

- b) Respecto de las restantes, se irá dictando su caducidad a medida que venzan los plazos establecidos en los correspondientes acuerdos.

3. En tanto no se proceda a su extinción, se mantendrán con idéntico contenido las relaciones jurídicas derivadas de dichas autorizaciones y concesiones. No obstante, dichas relaciones jurídicas pasarán a regirse por el Derecho privado, y corresponderá al orden jurisdiccional civil conocer de los litigios que surjan en relación con las mismas.

4. Cuando los bienes desafectados pertenezcan al patrimonio de la Administración General del Estado, el órgano competente para declarar la caducidad de las relaciones jurídicas derivadas de las concesiones y autorizaciones otorga-



3. Aurreko artikuluko d) letran ezarritakoaren arabera emakida aldez aurretik erreskatatuz gero, azkentze aurreratuak sortutako kalte materialaren kalte-ordaina emango zaio titularrari. Erreskatea gertatzen den egunean bermea Jabetza Erregistroan inskribatua duten hartzekodun hipotekarioen eskubideak kontuan hartuko dira kalte-ordainaren zenbatekoa eta hartzaileak zehazteko.

4. Hartzekodun hipotekarioek jakinarazpena jasoko dute espedienteak irekitzen direnean emakida iraungitzeko, aurreko artikuluko f) paragrafoan ezarritakoaren arabera klausulak eta baldintzak ez betetzeagatik, hartara aukera izan dezaten beren eskubideen alde agertzeko, eta, hala badagokio, hirugarren bat proposa dezaten emakidaren klausulak betetzen ez dituen emakidaduna ordeztu dezakeena.

## **102. artikulua. Ondasun desafektatuen gaineko emakida eta baimenak likidatzea**

1. Estatuaren Administrazio Orokorren ondarekoak diren eta gainean baimenak edo emakidak dituzten ondasunak eta eskubideak desafektatzeko proposamenarekin batera, memoria bat aurkeztu beharko da justifikatzeko zergatik den komenigarria edo beharrezkoa ondasunari jabari publikoko izaera kentzea, eta zein diren galera horren terminoak, baldintzak eta emakidaren gaineko ondorioak.

2. Emakida edo baimenen mende dauden ondasunak desafektatzen badira, emakida edo baimena azkendu egingo da, honako arau hauen arabera:

- a) Iraungitza joko dira gozamen-epea betea badute edo Administrazioak beretzat gordea badu eperik adierazi gabe libreki erreskatatzeko ahalmena.
- b) Gainerakoei iraungipena emanaz joango zaie bakoitzaren akordioan ezarritako epeak amaitu ahala.

3. Azkentzen ez diren bitartean, eduki berberarekin mantenduko dira baimen eta emakida horietatik eratorritako harreman juridikoak. Hala ere, aurrerantzean zuzenbide pribatuak arautuko ditu harreman juridiko horiek, eta jurisdikzio-ordena zibilari egokituko zaio haien inguruan sortzen diren auziak aztertzea.

4. Desafektatutako ondasunak Estatuaren Administrazio Orokorren ondarekoak direnean, Ogasuneko ministroak izango du eskumena ondasunak jabari publikokoak zireneko emakida eta baimenetatik eratorritako

das cuando los bienes eran de dominio público será el Ministro de Hacienda. En este mismo caso, corresponderá a la Dirección General del Patrimonio del Estado exigir los derechos y cumplir los deberes que se deriven de dichas relaciones jurídicas, mientras mantengan su vigencia.

5. El Ministerio de Hacienda podrá acordar la expropiación de los derechos si estimare que su mantenimiento durante el término de su vigencia legal perjudica el ulterior destino de los bienes o los hace desmerecer considerablemente a efectos de su enajenación.

### **Artículo 103. Derecho de adquisición preferente**

1. Cuando se acuerde la enajenación onerosa de bienes patrimoniales, los titulares de derechos vigentes sobre ellos que resulten de concesiones otorgadas cuando los bienes tenían la condición de demaniales tendrán derecho preferente a su adquisición. La adquisición se concretará en el bien o derecho, o la parte del mismo, objeto de la concesión, siempre que sea susceptible de enajenación.

2. Este derecho podrá ser ejercitado dentro de los 20 días naturales siguientes a aquel en que se les notifiquen en forma fehaciente la decisión de enajenar la finca, el precio y las demás condiciones esenciales de la transmisión. En caso de falta de notificación, o si la enajenación se efectúa en condiciones distintas de las notificadas, el derecho podrá ejercitarse dentro de los 30 días naturales siguientes a aquel en que se haya inscrito la venta en el Registro de la Propiedad.

3. El derecho de adquisición preferente no surgirá en caso de cesión gratuita del bien o de transferencia de titularidad, por cualquier negocio jurídico, a favor de Administraciones públicas, organismos de ellas dependientes, fundaciones o instituciones públicas u organismos internacionales. En este supuesto, quienes hayan recibido los bienes sobre los que recaigan los derechos establecidos en favor de beneficiarios de concesiones o autorizaciones podrán liberarlos, a su costa, en los mismos términos que la Administración General del Estado. Si se produjera la reversión de los bienes o derechos cedidos, los cesionarios no tendrán derecho alguno por razón de las indemnizaciones satisfechas con motivo de aquella liberación.

### **Artículo 104. Reservas demaniales**

1. La Administración General del Estado podrá reservarse el uso exclusivo de bienes de su titularidad destinados al uso general para la realización de fines de su competencia, cuando existan razones de utilidad pública o interés general que lo justifiquen.

harreman juridikoak iraungitzat deklaratzeko. Kasu horretan, Estatuaren Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari dagokio harreman juridiko horietatik eratorritako eskubideak galdatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dirauten bitartean.

5. Eskubideak desjabetzea erabaki ahal izango du Ogasun Ministerioak, irizten badio legezko indarraldia amaitu arte haiei eustea kaltegarria dela ondasunek gerora duten xederako edo nabarmen higatzen dituela desjabetzearen ondorioetarako.

### **103. artikulua. Lehentasunez eskuratzeko eskubidea**

1. Ondare-ondasunak kostu bidez besterentzea erabakitzen denean, haiek eskuratzeko lehentasunezko eskubidea izango dute ondasunak jabari publiko-koak zireneko emakiden ondorioz haien gaineko eskubideak indarrean dituzten titularrek. Emakidaren gai den ondasun edo eskubideari edo haren zati bati dagokionez gauzatuko da eskurapena, baldin eta besterendu daitekeena bada.

2. Eskubide hori 20 egun naturaleko epean baliatu ahal izango da, finka besterentzeko erabakia, prezioa eta eskualdaketaren gainerako funtsezko baldintzak modu fede-emailean jakinarazten zaizkien egunetik aurrera. Jakinarazpenik ez badago, edo besterentzea jakinarazitakoez bestelako baldintza batzuetan egiten bada, 30 egun naturalen barruan baliatu ahal izango da eskubidea, Jabetza Erregistroan salmenta inskribatu den egunetik aurrera.

3. Lehentasunez eskuratzeko eskubidea ez da sortuko ondasuna doan lagatzen edo haren titulartasuna transferitzen bazaie —edozein negozio juridikoren bidez— administrazio publikoei, haien mendeko organismoei, fundazioei edo nazioarteko erakunde publiko edo organismoei. Kasu horretan, emakiden edo baimenen onuradunen alde ezarritako eskubideen gaineko ondasunak jaso dituztenek aukera izango dute haiek askatzeko, beren kontura, Estatuaren Administrazio Orokorra egin dezakeen baldintza berberetan. Lagatako ondasun edo eskubideen itzulketa gertatuz gero, lagapen-hartzaileek ez dute batere eskubiderik izango askatze horrengatik ordaindutako kalte-ordainak direla eta.

### **104. artikulua. Jabari publikoaren erreserbak**

1. Estatuaren Administrazio Orokorra beretzat erreserbatu ahal izango du erabilera orokorrera bideratutako bere titulartasuneko ondasun batzuen erabilera eskusibo, bere eskumeneko helburuak betetzeko, hori justifikatzen duten arrazoiak baldin badaude onura publikoaren edo interes orokorraren aldetik.

2. La duración de la reserva se limitará al tiempo necesario para el cumplimiento de los fines para los que se acordó.

3. La declaración de reserva se efectuará por acuerdo del Consejo de Ministros, que deberá publicarse en el «Boletín Oficial del Estado» e inscribirse en el Registro de la Propiedad.

4. La reserva prevalecerá frente a cualesquiera otros posibles usos de los bienes y llevará implícita la declaración de utilidad pública y la necesidad de ocupación, a efectos expropiatorios, de los derechos preexistentes que resulten incompatibles con ella.

## CAPÍTULO II

### Aprovechamiento y explotación de los bienes y derechos patrimoniales

#### Artículo 105. Órganos competentes

1. La explotación de los bienes y derechos patrimoniales de la Administración General del Estado que no estén destinados a ser enajenados y sean susceptibles de aprovechamiento rentable será acordada por el Ministro de Hacienda, a propuesta de la Dirección General del Patrimonio del Estado, cuando el plazo por el que se concede dicha explotación sea superior a un año. Si el plazo inicial de explotación no excede de un año, la referida competencia corresponderá al Director General del Patrimonio del Estado.

2. Los presidentes o directores de los organismos públicos determinarán la forma de explotación de los bienes y derechos patrimoniales que sean de la propiedad de éstos.

3. La atribución del uso de bienes o derechos patrimoniales por plazo inferior a 30 días o para la organización de conferencias, seminarios, presentaciones u otros eventos no se sujetará a los requisitos del presente capítulo. El órgano competente fijará en el acto de autorización, tanto las condiciones de la utilización como la contraprestación a satisfacer por el solicitante.

4. Las Administraciones públicas territoriales pueden instar la mejora del aprovechamiento y explotación de los bienes y derechos patrimoniales mediante la presentación de proyectos que afecten a estos bienes y derechos. Los proyectos seguirán los principios a los que se refiere el artículo 8 de esta ley y los órganos competentes estudiarán y, en su caso, resolverán las peticiones contenidas en estos proyectos que afecten a estos bienes y derechos.

2. Erreserbaren iraupena, soil-soilik, erabakitako helburuak betetzeko behar den denborakoa izango da.

3. Erreserba-deklarazioa Ministro Kontseiluaren erabakiz egingo da, eta erabaki hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Jabetzaren Erregistroan inskribatu beharko da.

4. Erreserba nagusituko da ondasunek izan lezaketen beste edozein erabile-raren aldean, eta berekin ekarriko du onura publikoko deklaratzeari eta horrekin bateraezinak diren lehendikako eskubideak okupatu behar izatea desjabetze-ondorioetarako.

## II. KAPITULUA

### Ondare-ondasunen eta -eskubideen aprobetxamendua eta ustiapena

#### 105. artikulua. Organo eskudunak

1. Besterentzera bideratuak ez dauden eta etekin-aprobetxamendurako bali-  
lia daitezkeen Estatuaren Administrazio Orokorraren ondare-ondasunak eta  
-eskubideak ustiatzea Ogasuneko ministroak erabakiko du, Estatuaren On-  
darearen Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, ustiapenerako ematen den epea  
urtebetetik gorakoa denean. Ustiapenerako hasierako epea urtebete baino  
gehiagokoa ez bada, eskumen hori Estatuaren Ondarearen zuzendari nagusiak  
izango du.

2. Organismo publikoetako presidentek edo zuzendariak erabakiko dute  
nola ustiatuko diren haien jabetzako ondare-ondasunak eta -eskubideak.

3. Ez da kapitulu honetako betekizunei lotuta egongo ondare-ondasunak  
edo -eskubideak 30 egun baino gutxiagoko epean erabiltzeko esleitzea edo hi-  
tzaldi, mintegi, aurkezpen edo bestelako ekitaldietan erabiltzeko esleitzea. Or-  
gano eskudunak zehaztuko ditu, baimentze-egintzan, erabilera-baldintzak eta  
eskatzaileak ordaindu beharreko kontraprestazioa.

4. Lurralde-administrazio publikoek eska dezakete ondare-ondasun eta  
-eskubideen aprobetxamendua eta ustiapena hobetzeko, ondasun eta eskubide  
horiei eragiten dieten proiektuak aurkeztuz. Proiektuek lege honen 8. artiku-  
luan aipatzen diren printzipioei jarraitu behar diete, eta organo eskudunek az-  
tertuko eta, hala badagokio, ebatziko dituzte proiektu horietan jasotako eskae-  
rak, ondasun eta eskubide horiei eragiten dietenak.

## **Artículo 106. Contratos para la explotación de bienes patrimoniales**

1. La explotación de los bienes o derechos patrimoniales podrá efectuarse a través de cualquier negocio jurídico, típico o atípico.

2. Serán de aplicación a estos negocios las normas contenidas en el capítulo I del título V de esta ley.

3. Los contratos para la explotación de los bienes o derechos patrimoniales no podrán tener una duración superior a 20 años, incluidas las prórrogas, salvo causas excepcionales debidamente justificadas.

4. Podrán concertarse contratos de arrendamiento con opción de compra sobre inmuebles del Patrimonio del Estado con sujeción a las mismas normas de competencia y procedimiento aplicables a las enajenaciones.

## **Artículo 107. Procedimiento de adjudicación**

1. Los contratos para la explotación de los bienes y derechos patrimoniales se adjudicarán por concurso salvo que, por las peculiaridades del bien, la limitación de la demanda, la urgencia resultante de acontecimientos imprevisibles o la singularidad de la operación, proceda la adjudicación directa. Las circunstancias determinantes de la adjudicación directa deberán justificarse suficientemente en el expediente.

2. Las bases del correspondiente concurso o las condiciones de la explotación de los bienes patrimoniales se someterán a previo informe de la Abogacía del Estado o del órgano al que corresponda el asesoramiento jurídico de las entidades públicas vinculadas a la Administración General del Estado.

3. Los contratos y demás negocios jurídicos para la explotación de bienes se formalizarán en la forma prevenida en el artículo 113 de esta ley y se regirán por las normas de Derecho privado correspondientes a su naturaleza, con las especialidades previstas en esta ley.

4. A petición del adjudicatario podrá prorrogarse el contrato para la explotación de bienes patrimoniales, por un plazo que no podrá exceder de la mitad del inicial, si el resultado de la explotación hiciera aconsejable esta medida.

5. La subrogación de un tercero en los derechos y obligaciones del adjudicatario requerirá la autorización expresa del órgano competente para adjudicar el contrato.

## **106. artikulua. Ondare-ondasunak ustiatzeko kontratuak**

1. Ondare-ondasunak edo -eskubideak edozein negozio juridikoren bidez ustia daitezke, izan tipikoa edo atipikoa.

2. Negozio horiei aplikatzekoak dira lege honen V. tituluko I. kapituluan jasotako arauak.

3. Ondare-ondasunak edo -eskubideak ustiatzeko kontratuek ezin izango dute 20 urtetik gorako iraupena izan, luzapenak barne, ez badago salbuespe-  
nezko arrazoi egoki justifikaturik.

4. Erostea aukera jasotzen duten errentamendu-kontratuak hitzartu ahal izango dira estatuaren ondareko higiezinaren gainean, besterentzei aplikatu beharreko eskumen- eta prozedura-arau berei jarraituz.

## **107. artikulua. Adjudikatzeko prozedura**

1. Ondare-ondasun eta -eskubideak ustiatzeko kontratuak lehiaketa bidez esleituko dira, non eta ez dagokion zuzeneko adjudikazioa egitea ondasunaren berezitasunengatik, eskari mugatua izateagatik, aurreikusi ezin diren gertakizun-  
en ondoriozko presagatik edo eragiketaren berezitasunagatik. Zuzeneko adju-  
dikazioa eragin duten inguruabarrak behar bezala justifikatu beharko dira espe-  
dientean.

2. Dagokion lehiaketaren oinarriari edo ondare-ondasunak ustiatzeko bal-  
dintzei buruz, aurretiaz txostena egin beharko du Estatuaren Abokatutzak edo  
Estatuaren Administrazio Orokorrari lotutako organismo publikoen aholkulari  
juridiko izatea dagokion organoak.

3. Ondasunak ustiatzeko kontratuak eta gainerako negozio juridikoak lege  
honen 113. artikuluan aurreikusitako moduan formalizatuko dira, eta beren  
izaerari dagozkion zuzenbide pribatuko arauari jarraituko diete, lege honetan  
aurreikusitako berezitasunekin.

4. Ondare-ondasunak ustiatzeko kontratua luzatu ahal izango da, adju-  
dikaziodunaren eskariz, ustiapenaren emaitzak neurri hori hartzea gomendatzen  
badu; luzapena, gehienez, hasierako epearen erdia izango da.

5. Hirugarren bat adjudikaziodunaren eskubide eta betebeharretan subro-  
gatzeko, esanbidezko baimena eman beharko du kontratua adjudikatzeko esku-  
mena duen organoak.

### **Artículo 108. Frutos y rentas patrimoniales**

1. Las rentas, frutos o percepciones de cualquier clase o naturaleza producidos por los bienes patrimoniales de la Administración General del Estado se ingresarán en el Tesoro Público con aplicación a los pertinentes conceptos del presupuesto de ingresos, haciéndose efectivos con sujeción a las normas y procedimientos del derecho privado.

2. Si la explotación conllevase la entrega de otros bienes, derechos o servicios, éstos se integrarán en el patrimonio de la Administración General del Estado o del organismo público con el carácter de patrimoniales.

### **Artículo 109. Administración y explotación de propiedades incorporeales**

1. Corresponde al Ministerio de Hacienda, a propuesta, en su caso, del Ministerio que las haya generado, la administración y explotación de las propiedades incorporeales de la Administración General del Estado, salvo que por acuerdo del Consejo de Ministros se encomienden a otro departamento ministerial u organismo público.

2. Los presidentes o directores de los organismos públicos serán los órganos competentes para disponer la administración y explotación de las propiedades incorporeales de que aquéllos sean titulares.

3. La utilización de propiedades incorporeales que, por aplicación de la legislación especial, hayan entrado en el dominio público, no devengará derecho alguno en favor de las Administraciones públicas.

## TÍTULO V

### GESTIÓN PATRIMONIAL

#### CAPÍTULO I

##### Disposiciones generales

### **Artículo 110. Régimen jurídico de los negocios patrimoniales**

1. Los contratos, convenios y demás negocios jurídicos sobre bienes y derechos patrimoniales se regirán, en cuanto a su preparación y adjudicación, por esta ley y sus disposiciones de desarrollo y, en lo no previsto en estas normas,



## **108. artikulua. Ondare-fruituak eta -errentak**

1. Estatuaren Administrazio Orokorraren ondare-ondasunek sortutako errenta, fruitu edo edozein motatako hartzeoak Altxor Publikoan sartuko dira, diru-sarreraren aurrekontuko dagozkien kontzeptuei aplikaturik, eta zuzenbide pribatuko arauetara eta prozedurei lotuta guzatuko dira.

2. Ustiapenak berekin badakar beste ondasun, eskubide edo zerbitzu batzuk entregatzea, horiek guztiak ondarezko izaerarekin sartuko dira Estatuaren Administrazio Orokorraren edo organismo publikoaren ondarean.

## **109. artikulua. Jabetza gorpuzgabeen administrazioa eta ustiapena**

1. Ogasun Ministerioari dagokio, sortu dituen ministerioaren proposamenetaz, hala badagokio, Estatuaren Administrazio Orokorraren jabetza gorpuzgabeak administratzea eta kudeatzea, non eta Ministro Kontseiluaren erabakiz ez zaizkion beste ministerio edo organismo publiko bati gomendatzen eginkizun horiek.

2. Organismo publikoetako presidente edo zuzendariak izango dira organo eskudun beren titulartasuneko jabetza gorpuzgabeen administrazioaz eta kudeaketaz erabakitzeke.

3. Legeria berezia aplikatzearen ondorioz jabari publikoan sartu diren jabetza gorpuzgabeak erabiltzeak ez du inolako eskubiderik sortuko administrazio publikoaren alde.

# V. TITULUA

## ONDARE-KUDEAKETA

### I. KAPITULUA

#### Xedapen orokorrak

## **110. artikulua. Ondare-negozioen araubide juridikoa**

1. Ondare-ondasun eta -eskubideei buruzko kontratu, hitzarmen eta negozio juridikoak, haien prestaketari eta adjudikazioari dagokionez, lege honek eta berau garatzeko arauak eraenduko dituzte, eta, arau hauetan aurreikusi gabeko egoere-

por la legislación de contratos de las Administraciones públicas. Sus efectos y extinción se regirán por esta ley y las normas de derecho privado.

2. En las entidades públicas empresariales y en los organismos públicos Puertos del Estado y Autoridades Portuarias, la preparación y adjudicación de estos negocios, así como la competencia para adoptar los correspondientes actos, se regirán, en primer término, por lo establecido en sus normas de creación o en sus estatutos, con aplicación, en todo caso, de las previsiones recogidas en el artículo 147 de esta ley.

3. El orden jurisdiccional civil será el competente para resolver las controversias que surjan sobre estos contratos entre las partes. No obstante, se considerarán actos jurídicos separables los que se dicten en relación con su preparación y adjudicación y, en consecuencia, podrán ser impugnados ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo de acuerdo con su normativa reguladora.

### **Artículo 111. Libertad de pactos**

1. Los contratos, convenios y demás negocios jurídicos sobre los bienes y derechos patrimoniales están sujetos al principio de libertad de pactos. La Administración pública podrá, para la consecución del interés público, concertar las cláusulas y condiciones que tenga por conveniente, siempre que no sean contrarias al ordenamiento jurídico, o a los principios de buena administración.

2. En particular, los negocios jurídicos dirigidos a la adquisición, explotación, enajenación, cesión o permuta de bienes o derechos patrimoniales podrán contener la realización por las partes de prestaciones accesorias relativas a los bienes o derechos objeto de los mismos, o a otros integrados en el patrimonio de la Administración contratante, siempre que el cumplimiento de tales obligaciones se encuentre suficientemente garantizado. Estos negocios complejos se tramitarán en expediente único, y se regirán por las normas correspondientes al negocio jurídico patrimonial que constituya su objeto principal.

### **Artículo 112. Expediente patrimonial**

1. Podrán establecerse pliegos generales de pactos y condiciones para determinadas categorías de contratos que deberán ser informados, con carácter previo a su aprobación, por la Abogacía del Estado o por el órgano al que corresponda el asesoramiento jurídico de las entidades públicas vinculadas a la Administración General del Estado.

2. En todo caso, los actos aprobatorios de los negocios patrimoniales incorporarán los pactos y condiciones reguladores de los derechos y obligaciones de

tan, administrazio publikoen kontratuei buruzko legeriak. Efektuei eta azkentzeari dagokienez, lege honek eta zuzenbide pribatuko arauak aginduko dute.

2. Enpresa-erakunde publikoetan eta Estatuko Portuak eta Portuko Agintaritzak organismo publikoetan, negozio horiek prestatu eta adjudikatzeari eta halaber dagozkien egintzak emateko eskumenari dagokienez, haien sorrera-arauetan edo estatutuetan ezarritakoak aginduko du, lehenik eta behin, eta aplikatzekoak izango dira beti lege honen 147. artikuluan jasotako aurreikuspenak.

3. Jurisdikzio-ordena zibila izango da eskudun kontratu horiei buruz alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko. Hala ere, egintza juridiko be-reizgarritzat joko dira haiek prestatzarekin eta adjudikatzearekin loturik ematen direnak, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean aurkaratu ahal izango dira, haiek erregulatzen dituen araudiaren arabera.

### **111. artikulua. Itunak egiteko askatasuna**

1. Ondare-ondasun eta -eskubideei buruzko kontratu, hitzarmen eta gainerako negozio juridikoak itun-askatasunaren printzipioari loturik daude. Administrazio publikoak aukera izango du, interes publikoa xedetzat hartuta, egokitzen jotzen dituen klausula eta baldintzak ituntzeko, ez badira ordenamendu juridikoaren aurkakoak edo administrazio onaren printzipioaren aurkakoak.

2. Bereziki, ondare-ondasun edo -eskubideak eskuratzerara, ustiatzera, berrerentzera, lagatzera edo trukatzera bideratutako negozio juridikoek beren barruan jaso ahal izango dute alderdiek prestazio osagarriak egitea negozioon gai diren ondasun edo eskubideei buruz edo administrazio kontratatzailearen ondareko beste batzuei buruz, aski bermatuta badago betebeharrak horiek beteko direla. Negozio konplexu horiek espediente bakarrean izapidetuko dira, eta objektu nagusi duten ondare-negozio juridikoari dagozkion arauak eraenduko dituzte.

### **112. artikulua. Ondare-espedientea**

1. Kontratu-kategoria jakin batzuetarako itun eta baldintzen plegu orokorrak ezarri ahal izango dira, zeinak informatu beharko baititu, onetsi aurretik, Estatuaren Abokatutzak edo Estatuaren Administrazio Orokorrari lotutako organismo publikoen aholkulari juridiko izatea dagokion organoak.

2. Nolanahi ere, ondare-negozioak onesteko egintzek jasoak izan beharko dituzte alderdien eskubideak eta betebeharrak arautzen dituzten itunak eta bal-

las partes, que deberán ser informados previamente por la Abogacía del Estado o por el órgano al que corresponda el asesoramiento jurídico de las entidades públicas vinculadas a la Administración General del Estado.

3. La Intervención General de la Administración del Estado emitirá informe previo en los procedimientos de enajenación directa y permuta de bienes o derechos cuyo valor supere 1.000.000 de euros, en los de explotación cuya renta anual exceda dicha cuantía, y en los de cesión gratuita que hayan de ser autorizados por el Consejo de Ministros. Este informe examinará especialmente las implicaciones presupuestarias y económico-financieras de la operación.

4. Cuando el contrato origine gastos para la Administración General del Estado o sus organismos autónomos, deberá constar en el expediente el certificado de existencia de crédito o documento que legalmente le sustituya y, en su caso, ser objeto de fiscalización previa de acuerdo con el Real Decreto Legislativo 1091/1988, de 23 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General Presupuestaria, y sus disposiciones de desarrollo.

5. Los informes previstos en los apartados anteriores deberán emitirse en el plazo de 10 días.

6. Los expedientes de enajenación, permuta o cesión gratuita de bienes del Patrimonio del Estado podrán tramitarse aún cuando los bienes se mantengan afectados a un uso o a un servicio público durante la instrucción del mismo, siempre que se proceda a su desafectación antes de dictar la resolución o acto aprobatorio de la correspondiente operación patrimonial.

### **Artículo 113. Formalización**

1. Con las salvedades establecidas en el apartado siguiente, los negocios jurídicos de adquisición o enajenación de bienes inmuebles y derechos reales se formalizarán en escritura pública. Los arrendamientos y demás negocios jurídicos de explotación de inmuebles, cuando sean susceptibles de inscripción en el Registro de la Propiedad, deberán formalizarse en escritura pública, para poder ser inscritos. Los gastos generados por ello serán a costa de la parte que haya solicitado la citada formalización.

2. Las cesiones gratuitas de bienes inmuebles o derechos reales sobre los mismos, cuando el cesionario sea otra Administración pública, organismo o entidad vinculada o dependiente, así como las enajenaciones de inmuebles rústicos cuyo precio de venta sea inferior a 150.000 euros se formalizarán en documento administrativo, que será título suficiente para su inscripción en el Registro de la Propiedad.

dintzak, zeinak informatu beharko baitituzte Estatuaren Abokatutzak edo Estatuaren Administrazio Orokorriari lotutako organismo publikoen aholkulari juridiko izatea dagokion organoak.

3. Estatuaren Administrazioaren Kontu-hartzaitza Orokorra aurretiazko txostena emango du 1.000.000 eurotik gorako balioa duten ondasunak edo eskubideak zuzenean besterentzeko eta trukatzeko prozeduretan, urteko errentan kopuru hori gainditzen duten ustiapen-prozeduretan eta Ministro Kontseiluak baimendu behar dituen doako lagapenen prozeduretan. Txosten horrek, batez ere, eragiketarako aurrekontuan eta alderdi ekonomiko-finantzarioetan duen eragina aztertuko du.

4. Kontratuak gastuak sortzen dizkienean Estatuaren Administrazio Orokorriari edo haren organismo autonomoei, espediente jasota utzi beharko da badagoela kreditua edo legez hura ordezkatzeko duen agiri bat, eta, hala badagokio, aldez aurretik fiskalizatu beharko da, Aurrekontu Lege Orokorriaren testuategina onesten duen irailaren 23ko 1091/1988 Legegintzako Errege Dekretuaren eta hura garatzeko xedapenen arabera.

5. Aurreko apartatuetan aurreikusitako txostenak 10 eguneko epean eman behar dira.

6. Estatuaren ondareko ondasunak besterentzeko, trukatzeko edo doan lagatzeko espedienteak izapidetu ahal izango dira nahiz eta ondasunak erabilera edo zerbitzu publiko baterako afektaturik egon prozeduraren instrukzioak dirauen bitartean, baldin eta desafektatzen badira dagokion ondare-eragiketarako onesteko ebazpena edo egintza eman baino lehen.

### **113. artikulua. Formalizatzea**

1. Hurrengo apartatuan ezarritako salbuespenak salbu, eskritura publikoan formalizatuko dira ondasun higiezinak eta eskubide errealak eskuratzeko edo besterentzeko negozio juridikoak. Ondasun higiezinak ustiatzeko errentamenduak eta gainerako negozio juridikoak, Jabetza Erregistroan inskriba daitezkeenak badira, eskritura publikoan formalizatu beharko dira inskribatu ahal izateko. Formalizazioa eskatu duen alderdiaren kontura izango dira hargatik sortutako gastuak.

2. Ondasun higiezinaren edo haien gaineko eskubide errealen doako lagapenak, lagapen-hartzailea beste administrazio publiko bat edo hari lotutako edo haren mendeko organismo edo erakunde bat denean, eta halaber saltzeko prezioa 150.000 eurotik beherakoa duten landa-higiezinaren besterentzeak, agiri administratiboan formalizatuko dira, eta agiri hori titulu nahikoa izango da Jabetza Erregistroan inskribatzeko.

3. Compete a la Dirección General del Patrimonio del Estado realizar los trámites conducentes a la formalización notarial de los contratos y demás negocios jurídicos sobre bienes y derechos de la Administración General del Estado a que se refiere este título.

En el otorgamiento de las escrituras ostentará la representación de la Administración General del Estado el Director General del Patrimonio del Estado o funcionario en quien delegue.

4. Los actos de formalización que, en su caso, se requieran en las adquisiciones derivadas del ejercicio de la potestad de expropiación y del derecho de reversión, serán efectuados por el ministerio u organismo que los inste.

5. El arancel notarial que deba satisfacer la Administración pública por la formalización de los negocios patrimoniales se reducirá en el porcentaje previsto en la normativa arancelaria notarial.

#### **Artículo 114. Tasaciones periciales e informes técnicos**

1. Las valoraciones, tasaciones, informes técnicos y demás actuaciones periciales que deban realizarse para el cumplimiento de lo dispuesto en esta ley deberán explicitar los parámetros en que se fundamentan, y podrán ser efectuadas por personal técnico dependiente del departamento u organismo que administre los bienes o derechos o que haya interesado su adquisición o arrendamiento, o por técnicos facultativos del Ministerio de Hacienda. Estas actuaciones podrán igualmente encargarse a sociedades de tasación debidamente inscritas en el Registro de Sociedades de Tasación del Banco de España y empresas legalmente habilitadas, con sujeción a lo establecido en la legislación de contratos.

2. En todo caso, las tasaciones periciales y los informes técnicos requeridos para la adquisición o el arrendamiento de inmuebles deberán aportarse por el departamento interesado en la apertura del correspondiente procedimiento, sin perjuicio de que la Dirección General del Patrimonio del Estado pueda revisar las valoraciones efectuadas.

3. La tasación deberá ser aprobada por el Director General del Patrimonio del Estado, o en el caso de organismos públicos, por el órgano competente para concluir el negocio correspondiente. Cuando en un expediente constaren tasaciones discrepantes, la aprobación recaerá sobre la que se considere más ajustada al valor del bien.

4. De forma motivada, podrá modificarse la tasación cuando ésta no justifique adecuadamente la valoración de algunos elementos determinantes,

3. Estatuaren Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren eskumena da behar diren izapideak egitea titulu honetan aipatzen diren Estatuaren Administrazio Orokorren ondasunen eta eskubideen gaineko kontratu eta gainerako negozio juridikoen formalizazio notarialerako.

Eskriturak ematean, Estatuaren Administrazio Orokorren ordezkaritza Estatuaren Ondarearen zuzendari nagusiak edo hark eskuordetutako funtzionarioak izango dute.

4. Desjabetze-ahalaz eta itzulketa-eskubidez baliatzen eratorritako esku-raketetan behar diren formalizazio-egintzak, behar badira, haiek eskatzen dituen ministerio edo organismoak egin beharko ditu.

5. Ondare-negozioak formalizatzeko Administrazio Publikoak ordaindu behar duen notario-arantzelaren zenbatekoari kendu egingo zaio notario-arantzelaren araudian aurreikusitako ehunekoak.

#### **114. artikulua. Peritu-tasazioak eta txosten teknikoak**

1. Lege honetan xedatutakoa betetzeko egin behar diren balorazio, tasazio, txosten tekniko eta gainerako peritu-jardunek esplizituki adierazi beharko dute zer parametrotan oinarritzen diren. Jarduera horiek egin ditzake ondasun edo eskubideak administratzen dituen edo ondasun edo eskubideok eskuratzea edo errentatzea eskatu duen ministerio edo organismoaren mendeko pertsona teknikoak, edo bestela Ogasun Ministerioko teknikari fakultatiboek. Jarduera horiek, era berean, enkarga dakizkioke Espainiako Bankuaren Tasazio Sozietateen Erregistroan behar bezala inskribatutako tasazio-sozietateei eta legez gaitutako enpresei, kontratuen legerian ezarritakoari atxikiz.

2. Nolanahi ere, higiezinak eskuratzeko edo errentan hartzeko eskatzen diren peritu-tasazioak eta txosten teknikoak dagokion prozedura irekitzeko interesa duen sailak aurkeztu beharko ditu, hargatik eragotzi gabe Estatuaren Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak berrikustea balorazioak.

3. Tasazioa Estatuaren Ondarearen zuzendari nagusiak onetsi beharko du, edo, organismo publikoen kasuan, dagokion negozioa amaitzeko eskumena duen organoak. Espediente batean bat ez datozen tasazioak agertzen direnean, ondasunaren balioari zehatzen egokitzen zaiola jotzen dena onetsiko da.

4. Arrazoiak emanda, tasazioa aldatu ahal izango da kasu hauetan: elementu erabakigarri batzuen balioespena behar bezala justifikatzen ez duenean,

cuando razones de especial idoneidad del inmueble le otorguen un valor para la Administración distinto del valor de mercado, o cuando concurren hechos o circunstancias no apreciados en la tasación.

5. Las tasaciones tendrán un plazo de validez de un año, contado desde su aprobación.

## CAPÍTULO II

### Adquisiciones a título oneroso

#### Artículo 115. Negocios jurídicos de adquisición

1. Para la adquisición de bienes o derechos la Administración podrá concluir cualesquiera contratos, típicos o atípicos.

2. La Administración podrá, asimismo, concertar negocios jurídicos que tengan por objeto la constitución a su favor de un derecho a la adquisición de bienes o derechos. Serán de aplicación a estos contratos las normas de competencia y procedimiento establecidas para la adquisición de los bienes o derechos a que se refieran, aunque el expediente de gasto se tramitará únicamente por el importe correspondiente a la prima que, en su caso, se hubiese establecido para conceder la opción.

#### Artículo 116. Procedimiento de adquisición de inmuebles o derechos sobre los mismos

1. En el ámbito de la Administración General del Estado, la competencia para adquirir a título oneroso bienes inmuebles o derechos sobre los mismos corresponde al Ministro de Hacienda, que podrá ejercerla por propia iniciativa, cuando lo estime conveniente para atender a las necesidades que, según las previsiones efectuadas, puedan surgir en el futuro, o a petición razonada del departamento interesado, a la que deberá acompañar, cuando se proponga la adquisición directa de inmuebles o derechos, la correspondiente tasación. La tramitación del procedimiento corresponderá a la Dirección General del Patrimonio del Estado.

2. La adquisición de inmuebles o derechos sobre los mismos por los organismos públicos vinculados a la Administración General del Estado o dependientes de ella se efectuará por su presidente o director, previo informe favorable del Ministro de Hacienda.

3. Al expediente de adquisición deberán incorporarse los siguientes documentos:



bereziki egokia izateagatik Administrazioarentzat merkatukoaz bestelako balioa duenean, edo tasazioan aintzat hartu ez diren gertaera edo inguruabarrak gertatzen direnean.

5. Tasazioek urtebeteko balioa izango dute, onesten direnetik aurrera.

## II. KAPITULUA

### Kostu bidezko eskuratzek

#### 115. artikulua. Eskuratzeko negozio juridikoak

1. Ondasunak edo eskubideak eskuratzeko, Administrazioak edozein kontratu burutu ahal izango du, tipikoa edo atipikoa.

2. Administrazioak, halaber, ondasunak edo eskubideak eskuratzeko eskubidea bere alde sortzea xede duten negozio juridikoak hitzartu ahal izango ditu. Kontratu horiei aplikatzekoak izango dira gai dituzten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko ezarritako eskumen- eta prozedura-arauak, baina gastu-espeditentea, soil-soilik, eskuratzeko aukera emateko ezarritako primari dagokion zenbatekoaren heinean izapidetuko da.

#### 116. artikulua. Higiezinak edo haien gaineko eskubideak eskuratzeko prozedura

1. Estatuaren Administrazio Orokorren esparruan, ondasun higiezinak edo haien gaineko eskubideak kostu bidez eskuratzeko eskumena Ogasuneko ministroari dagokio, eta hark bere ekimenez baliatu ahal izango du, egoki deritzon aurreikuspenen arabera gerora sor litezkeen beharrei erantzuteko, edo sail interesdunaren eskari arrazoituaren ondorioz, zeinarekin batera aurkeztu beharko baita, higiezinak edo eskubideak zuzenean eskuratzeko proposatzen denean, dagokien tasazioa. Prozedura izapidetzea Estatuaren Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari dagokio.

2. Estatuaren Administrazio Orokorrari lotutako edo haren mendeko organismoek higiezinak edo haien gaineko eskubideak eskuratzeko, haietako presidente edo zuzendariak egingo dute hori, aurrez Ogasuneko ministroak aldeko txostena eginda.

3. Eskuratzeko-espeditenteari honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

- a) Una memoria en la que se justificará la necesidad o conveniencia de la adquisición, el fin o fines a que pretende destinarse el inmueble y el procedimiento de adjudicación que, conforme a lo establecido en el apartado siguiente y de forma justificada, se proponga seguir.
- b) El informe de la Abogacía del Estado, o del órgano al que corresponda el asesoramiento jurídico de las entidades públicas vinculadas a la Administración General del Estado sobre las condiciones de la adquisición proyectada.
- c) La tasación del bien o derecho, debidamente aprobada, que incorporará el correspondiente estudio de mercado.

4. La adquisición podrá realizarse mediante concurso público o mediante el procedimiento de licitación restringida regulado en el apartado 4 de la disposición adicional decimoquinta, salvo que se acuerde la adquisición directa por las peculiaridades de la necesidad a satisfacer, las condiciones del mercado inmobiliario, la urgencia de la adquisición resultante de acontecimientos imprevistos, o la especial idoneidad del bien.

Igualmente, se podrá acordar la adquisición directa en los siguientes supuestos:

- a) Cuando el vendedor sea otra Administración pública o, en general, cualquier persona jurídica de derecho público o privado perteneciente al sector público.  
A estos efectos, se entenderá por persona jurídica de Derecho privado perteneciente al sector público la sociedad mercantil en cuyo capital sea mayoritaria la participación directa o indirecta de una o varias Administraciones públicas o personas jurídicas de Derecho público.
- b) Cuando fuera declarado desierto el concurso promovido para la adquisición.
- c) Cuando se adquiera a un copropietario una cuota de un bien, en caso de condominio.
- d) Cuando la adquisición se efectúe en virtud del ejercicio de un derecho de adquisición preferente.

5. Si la adquisición se hubiese de realizar mediante concurso, la correspondiente convocatoria se publicará en el «Boletín Oficial del Estado», sin perjuicio de los demás medios de publicidad que pudieran utilizarse.

- a) Memoria bat, zeinean justifikatuko baita eskuratzea beharrezko edo komenigarri dela, higiezina zer xedetara bideratuko den, eta adjudikaziorako zer prozedurari jarraituko zaion, hurrengo apartatuan ezarritakoaren arabera eta modu justifikatuan.
- b) Estatuaren Abokatuaren txostena, edo Estatuaren Administrazio Orokorrarekin lotutako organismo publikoaren aholkulari juridikoarena, aurreikusitako eskuratzearen baldintzei buruz.
- c) Ondasunaren edo eskubidearen tasazioa, behar bezala onetsia, zeinak barne hartuko baitu dagokion merkatu-azterketa.

4. Eskuraketa egin daiteke lehiaketa publiko bidez edo hamabosgarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan araututako lizitazio murriztuaren prozeduraren bidez, non eta ez den erabakitzen zuzenean eskuratzea, hornitu beharreko beharizanaren berezitasungatik, higiezin-merkatuaren baldintzengatik, aurreikusi ez daitezkeen gertaeren ondorioz eskurapena presazkoa izateagatik edo ondasunaren egokitasun bereziagatik.

Era berean, zuzenean eskuratzea erabaki ahal izango da honako kasu haue-  
tan:

- a) Saltzailea beste administrazio publiko bat denean, edo, oro har, sektore publikoaren barruko edozein pertsona juridiko, zuzenbide publiko edo pribatukoa.  
Ondorio horietarako, sektore publikoaren barruko zuzenbide pribatuko pertsona juridikotzat joko da merkataritza-sozietate bat zeinaren kapitalean gehiengoa baitu administrazio publiko baten edo zuzenbide publikoko pertsona juridiko baten edo batzuen zuzeneko edo zeharkako partaidetzak.
- b) Eskuraketarako egindako lehiaketa hutsik uzten denean.
- c) Jabekidetzaren kasuan, jabekide bati ondasun baten kuota bat eskuratzeko zailtasunak.
- d) Eskuraketa lehentasunez eskuratzeko eskubidea baliatuz egiten denean.

5. Eskurapena lehiaketa bidez egin behar bada, dagokion deialdia argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta beste publizitate-bide batzuk ere erabili ahal izango dira.

6. El importe de la adquisición podrá ser objeto de un aplazamiento de hasta cuatro años, con sujeción a los trámites previstos para los compromisos de gastos futuros.

### **Artículo 117. Adquisición de edificios en construcción**

1. La adquisición de inmuebles en construcción por la Administración General del Estado o sus organismos públicos podrá acordarse excepcionalmente por causas debidamente justificadas y siempre que se cumplan las siguientes condiciones:

- a) El valor del suelo y de la parte del edificio ya edificada debe ser superior al de la porción que se encuentra pendiente de construcción.
- b) La adquisición deberá acordarse por un precio determinado o determinable según parámetros ciertos.
- c) En el momento de firma de la escritura pública de adquisición, sin perjuicio de los aplazamientos que puedan concertarse, sólo podrá abonarse el importe correspondiente al suelo y a la obra realizada, según certificación de los servicios técnicos correspondientes.
- d) El resto del precio podrá abonarse a la entrega del inmueble o contra las correspondientes certificaciones de obra conformadas por los servicios técnicos.
- e) El plazo previsto para su terminación y entrega a la Administración adquirente no podrá exceder de dos años.
- f) El vendedor deberá garantizar suficientemente la entrega del edificio terminado en el plazo y condiciones pactados.
- g) El adquirente deberá establecer los mecanismos necesarios para asegurar que el inmueble se ajusta a las condiciones estipuladas.

2. La adquisición de inmuebles en construcción por la Administración General del Estado será acordada por el Ministro de Hacienda. La adquisición de estos inmuebles por los organismos públicos requerirá el previo informe favorable del Ministro de Hacienda.

3. Podrán adquirirse edificios en construcción mediante la entrega, total o parcial, de otros bienes inmuebles o derechos sobre los mismos, en las condiciones señaladas en el apartado 1 anterior.

### **Artículo 118. Adquisición de bienes inmuebles en el extranjero**

La adquisición por la Administración General del Estado de bienes inmuebles sitos en el extranjero y derechos sobre los mismos será acordada por

6. Eskurapenaren zenbatekoa geroratu ahal izango da, lau urte gehienez, etorkizuneko gastu-konpromisoetarako aurreikusitako izapideak betez.

### **117. artikulua. Eraikitzen ari diren eraikinak eskuratzea**

1. Estatuaren Administrazio Orokorrak edo haren organismo publikoek eraikitze-bidean dauden higiezinak eskuratzea erabaki ahal izango dute, salbuespen gisa, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik eta betiere baldintza hauek betetzen badira:

- a) Lurzoruaren eta jada eraikita dagoen eraikin-zatiaren balioak handiagoa izan behar du eraikitzeke dagoen zatiarena baino.
- b) Eskuratzea prezio jakin batean edo parametro zehatz batzuen arabera finkatzeko moduan hitzartu beharko da.
- c) Eskurapen-eskritura publikoa sinatzen den unean, erabaki daitezkeen gerorapenak gorabehera, lurzoruari eta egindako obrari dagokion zenbatekoa bakarrik ordaindu ahal izango da, dagokien zerbitzu teknikoan ziurtagirien arabera.
- d) Prezioaren gainerako zatia higiezina entregatzean edo zerbitzu teknikoek egindako obra-ziurtagirien kontra ordainduko da.
- e) Amaitzeko eta administrazio eskuratzailerari entregatzeko aurreikusitako epea ezin da bi urtetik gorakoa izan.
- f) Saltzaileak nahikoa berme eman beharko du eraikina hitzartutako epean eta baldintzetan amaiturik entregatuko duela.
- g) Eskuratzailerak behar diren mekanismoak ezarri beharko ditu higiezina ezarritako baldintzen arabera dela ziurtatzeko.

